

Astekaria

BARRREN

elgoi



Ihaurerietarako prest!

**Argazki errebelatua
ordu 1ean
Erreportaiak
Ezkontzak
Estudio argazkiak
Jaunartzeak
Karnetak
Argazki materiala**

ostarku

Santa Ana, 5 - Tel. 74 06 46

- 3 ZENBAT BURU HAINBAT ABURU**
Badugu zer ikasia franko izkinetan
- 6 ERREPORTAIA**
Baserrian egindako sagardoaren misterioak
- 8 ASTE HONETAN**
Ihauteriak - Haratuzteak - Karnabalak
- 14 BERBETAN**
Ana Aizpiri: Telebistak giza komunikazioa aldatu du
- 15 ELGOIBARTARRAK GOGORATUZ**
Felix Irureta (Irureta II) 1902-1980
- 16 KIROLA**
Elkarrizketa: Bittor Mujika
Nesken boleibol taldea sortu berri da
- 20 ELKARTEETATIK BUELTAN**
Bibliako Taldea: Jaingoikoaren hitzarekin indartuz
- 21 KULTURA**
Ihauterietarako prest

PREIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak.....	461111
Txanda hartzeko	743354
Alkoholiko Anonimoak.....	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria.....	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Z.....	741008
Odol Emaileen elkarte.....	743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.....	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua.....	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola	742145
Mintxeta	744315
Polikiroldegia	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza.....	740296
Zaharren Biltokia.....	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola	74 44 41
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea	74 13 31

farmaziak


- 12, larunbata: Etxeberria
- 13, igandea: Etxeberria
- 14, astelehena: Ormazabal
- 15, asteartea: Ormazabal
- 16, asteazkena: Ormazabal
- 17, osteguna: Ormazabal
- 18, ostirala: Yudego

okindegia

13, igandea:
EIZAGIRRE



HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

KAZETARIA:

Ainhoa Lodoso

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste

KOLABORATZAILEAK:

Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Ina Garagarza, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, Nerea Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNAK:

Imanol Larrañaga, Inaxio Garmendia

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Badugu zer ikasia franko izkinetan

Gabonetan senarra eta bion lagun bat izan dugu geure artean. Carlos izeneko lagunmin bat Perun bizi da gaur egun eta, lau urteren buruan, oraingo honetan euskalerriratu da lehendabizikoz, etxekoen epelera bi hilabete inguru igaro asmoz.

Gaztea da eta apaiza. Canariasetan eta Zumarragan aritu izan da hainbat urte. Zerbait gehiago bilatu nahian edo, urruneko lurraldeetara joatea bururatu zitzaion zorioneko egunetik "Pedro Ruiz"eko - bai, ongi irakurri duzu, telebistako showmanaren izena du bera bizi den herriak - erretorea da.

Ahaztuta zegoen nonbait hemengoon bizierarekin eta zeharo harritu dute guretzat arras ohizkoak diren mila jokaerek. Gure gizartean bizi ardatz eta arrazoi diren lana, ordularia, dirua, lehena izateak eta beste zenbait horrelako, gauza hutsal, funtsgabe eta irriarriak baino ez zaizkio begitandu. Eta ez da "milagro" zeren nonbaitera bidean denean eta bertakoei galdetzen ea ailegatzeko asko geratzen zaion, laupabost ordutako bidea egon gorabehera, "está ahorita mismo" erantzuten dioten gizaki patxadatsuz inguratuta bizi baita.

Alabaina pedroruiztarrak zoriontsu dira. Zoriontsu dira euren eskuz egindako etxolatxoetan, argi indarrak eta urik gabe, labore eta fruituz aparte ezer gutxi janda -haragia, esaterako, hilean behin baino ez dute ahoratzen-, izandako sei zazpi semealabetatik bizirik gelditzen zaizkien hiruzpalauekin. Pobrezia eta eskasian ere ez zaie bizipozaren iturria agortzen. Kantua eta dantza dariela bizi dira. Duten apurretik pozik asko eskainiko diote bisitariari.

Edozelan ere, errotari jiraka ihardun ostean, hauxe baino ez diot itauntzen ene buruari, ez al gara gu, ustez aberatsok, sakonean pbreak oso izango? Ustez jakintsu eta maisu garenok, ezjakin eta ikasle hutsak? Lehenengo Mundukook Hirugarren Mundua izenarekin bataiatu duguna ez al da, material arloan ezik, gu baino aitzinerago egongo?

Dena den, ezin da desberdina den oro besterik gabe gutxietsi, gure ezaguera ezak usu horretara bultzatzen bagaitu ere. Ez ahantzi, bada, lehenak garelako iritziak maiz lainotsa dakarkiola bihotzari eta iparra ikustatzea guttiz zaila bihurtzen.

Laburtuz, **badugu bai zer ikasia franko hainbat paraje galdu eta urrunetan.**

Myriam Villasante

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

• Zergatik ez da

Udaltzainik/Ertzainik egoten Sigmako zubian ordu puntetan?

Hara Udaltzaingoak zer erantzun digun:

“Galdera honen zain geunden.

Errepide nazionaleko trafikoaren ardura Ertzantzarena da. Halere, guk Txankakuako zubia eta Pilar pareko bidegurutzetara zaintzen ditugu. Zergatik ez diren beraien tokian egoten? Ez omen dute jenderik”.

Eibarko Ertzantzaren zuzendari ordeak jende eta errekurtsio faltagatik dela esan digu (60 ertzain gutxiago daude). Arazoak dauden kasuetan trafikoa erregulatzen dutela baina gainontzean gai hau poliki poliki lagatzen ari direla esan digu (aurrerantzean semaforoen bidez egingo da). Bukatzeko hiritarren seguritateak lehenetsia duela aitortu digu.



KEXAK

• Txankakua elkartekoei deitu digute urtarrilaren 28an “Iriondo kirolak” dendan egin zutena salatzen. Larunbat arratsaldetan ondo pasatzeko, dendetako pertsonak apurtu beharrik ez dagoela esan digute.



TXALOAK

• Maalatik anbulategirantz kotxez joateko dagoen pasabide estua behingoz norabide bakarrekoa jarri dute. Muturreko bat baino gehiago egon bada ere, zorianak halakoren batean zuzendu duzuelako.

ESKUTITZAK

A.A.ri erantzunez

Aurreko alean A.A.k galderen erantzunak galdetzailearen jakinmina asetzeko bestekoak izatea eskatzen zuen.

Beti gure esku ez badago ere, horixe da gure nahia eta horretan saiatuko gara. Galderei erantzun zuzena ematen ahaleginduko gara beti, baina zaila izango zaigu hori lortzea, erantzuna eman behar duenak ihes egitea nahi badu. Atal berri hau ausarta eta bizi-bizia egin nahi dugu baina horretarako irakurleon lankidetzara behar beharrezkoa da. Guk galderak gordin-gordinean egingo ditugu. Beraz, erantzun behar duenak du giltza.

Esker mila zure kezka azaltzeagatik eta nahi duzun arte.

BARRENez zuzendaria.

Haurren meza euskeraz eta erderaz

Zuzendari jauna:

Otsailaren 4eko BARRENez “Galderak” atalean agertzen zen “Zergatik ematen da igandetako haurren meza euskaraz eta erdaraz guztiek euskara jakinda?” galderari erantzunez, hauxe adierazi nahi dizut:

1.- Kristauok, meza egiten dugunean, ez dugu, zuzenki, haurrentzat bakarrik egiten. Mezatan ospatzen den eta eskaintzen den mezua, pertsona helduentzat gehiago da haurrentzat baino. Hala ere, haurrak kontutan izaten ditugu meza honetan eta parte hartze aktibo batera gonbidatzen ditugu.

2.- Haurrak, gurasoak eta pertsona helduak elkarrekin direla egiten den bilera batek, euskara eta erdararen erabilera berezia eskatzen du. Izan ere, haurrek euskaraz jakin, badakite, bai, baina hauen gurasoak ez dakite. Eta guraso hauek mezatan parte hartzea nahi genuke, hauek baitira haurren lehenengo hezitzaileak.

3.- Beraz, gure 11,30etako meza hau ezin daiteke haur jaialdi edo haurren euskal jai soil batekin parekatu, beste zerbaitekin.

San Bartolomeko parrokoa

Neskak ere intsumiso

Eskutiz honen bidez “KALERA” Emakume Gazteen Taldea, emakumezkoak intsumiso egiteko burutu behar dugun kanpainaren berri eman nahi dizuegu.

Intsumisoen alde gaude, gerrate eta industria belikoa, matxismoa, menekotasuna, xenofobia, sexismoa, inperialismoa, marjinazioa eta biolentziaren aurka gaudelako. Hauek bezalako balio militaristen bidez poblazio zibilaren portaerak eta jarrerak kontrolatzeko balio duen militarismo bera ukatzen dugulako.

Guzti honegatik kanpaina hau aurrera eramatea erabaki dugu eta Elgoibarko neskak intsumiso egitera animatzen ditugu. KALERA!!

Kalera, Emakume Gazteen Taldea



Aste honetako erretratua **Luzia Zabalak** lagatakoa da. Ikusten duzuen bezala, bete betean sartu gara karnabal giroan. Hala ere, 1943. urteko ihauteriek (orduan ateratakoa da erretratua) eta gaurkoek apenas traza haundirik duten. Donostian oraindik mantentzen den kaldereroen ohitura zaharra, ezagutu zuten elgoibar-

tarrek ere. Jakin dugunez, kaldereroen kalejiran ateratzen zuten dirua ospitaleko gaisoentzat izaten zen. Erretratuen azaltzen diren guztien izenik jakiterik ez dagoenez, denen zuzendaria zein zen esango dizuegu: **Don Julio Perez Cortes**. Berau Caceres-ekoa zen eta horrelako kalejiretako zuzendaria ezezik, orduko Musika Bandako zuzendaria ere ba omen zen.



ELEKTRONIKA
BIRE
ELEKTRAGAILUAK

Ubitarte 3 - Tel. 74 14 87 - ELGOIBAR

Ordu 1 ean errebelatzen dugu

foto | azkue

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

LURRINDEGIA

Yudego Ondo pasa
Karnabalak!!

San Frantzisko, 2. Tel. 74 02 99



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA

Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

Baserrian egindako sagardoaren misterioak

Sagardotegiak ireki berri dituzte. Gure baserrietan egindako sagardoa mahaira atera eta jaki goxoekin batera dastatzeko sasoia da. Kupelak gainezka daude sagardoz, baina lehenago, udazken aldera, baserritarrek sagarrak jaso, txikitu eta hauen zukuarekin sagardoa egiteari ekin zioten. Barrikatik ateratzeko garaian, gure baserrietan nola egiten duten sagardoa erakutsiko dizuegu segidan.


Elgoibar ez da sagardotegi zona baina sagarrondoak dauzkaten baserri gehienek egiten dute sagardoa. Besterik ez bada ere, lagunei oparitu eta familia artean edateko.

Sagarra eta sagardoaren sorrera ilunpetan izkutatzen zaigun arren, berau egin eta edateko tradizioa gaur arte ondo baino hobeto gorde da. Bibliako liburuetan esaten zen bezalaxe, "sagardoa triste daudenei

emateko" omen da. Ez dakigu triste edo ez hain triste daudenek edateko den ala ez, baina egia da garai batean edari askozaz preziatuagoa zela sagardoa. Ardorik ez zen apenas edaten, eta harek gaur duen lekua sagardoak zuen aintzina.

Sagarrak noiz batu

Goizekoa zein berandukoa izan, sagar mota bakoitza, arbolan heldu eta erortzeko zorian dagoenean, orduantxe bildu behar



■ ■ Lehendabizi sagarrak txikitu egin behar dira.



■ ■ Tolarean sagar patza prentsatu egiten da.

Errezil sagarra, gazia, sagardoa egiteko onena omen da. Gehien aguantatzen duen sagarra ere berau da.

da. Bere puntuan, gozatu-ta. Sarritan haizeak, heldu baino lehen botatzen ditu sagarrak lurrera. Aurten sagardoa egiteko sagar kiloa 29 pezeta ordaindu zaie baserritarrei.

Errezil sagarra, gazia, sagardoa egiteko onena omen da. Gehien aguantatzen duen sagarra ere berau da.

Sagarretik sagardora

Traktorearekin sagarrak batu eta kortan dagoen zulo batetik sagarrak botatzen dira. Sagarrak

birrintzeko tresna batek txiki txiki egiten ditu eta sagar patza deitzen zaiona lortzen da. Pala baten laguntzaz sagar patza behin tolarean dagoenean egurrezko hesi batez inguratzen da. Hesia edo "tiña" sagarrez beteta dagoela, gainean pisua jartzen zaio. Estutzen joanez gero, sagarrari ura ateratzen zaio eta ur hori goma baten bidez barrikara doa. Barrika bete ondoren likidoak irakin egiten du. Fermentazioa gertatzen da. Oso garrantzitsua da irakitea, bestela sagardoa guztiz motela ateratzen da. Irakitea jeisten joaten da eta sagardoa bere puntura etorriko da. Ondoren, barrikari tapoi bat jartzen zaio eta haizerik ez sartzeko koipea edo briarekin estaltzen da bueltan bueltan.

Barrika txikiak, 200, 300 edo 400 litroko barrikak, bi hilabete igarotzerako, irakinaldiak bukatuak ditu. Kupel handiak, 3.000

litrotik gorakoak, hiru hilabete t'erditik lau hilabetera du epe ona. Hala ere, epe hauek aldakuntza izugarria izan lezakete hotz-beroaren eraginez.

Kortxoka kontatu

Zenbait tokitan, litroka kontatu beharrean kortxoka kontatzen da sagardoa. Hau da, hainbat kortxo hainbat botila sagardo. Eta gero, litroak kalkulaten dira hortik. Metodu hau haseratik litroka kontatzea baino zehatzago omen da. Kor-txoak beratzen jartzen dira eta bero bero daudenean, aparatu baten bidez, botila muturrean sartzen dira. Kortxoak jartzeko prozesua oso ximplea da. Hori bai, derrigor errespetatu



■ ■ Barriketan sagardoak irakin egin behar du.

Sagardoak irakin egiten du fermentazioak eraginda. Irakiten ez duen sagardoa motela aterako da.

behar den gauza bat zera da: sagardoa hilbetetik hiltzerrainoko tartean sartu behar dela botiletan. Barrikan aurretik egindako zuloa ireki, gomaxo bat sartu bertan eta sagardoa botilara zuzenean sartzen da. Kortxoarekin itxi besterik ez da geratzen eta aparteko ganbara batean, hotz-beroa mantentzen duen ganbara batean, gorde egiten da. Sasoia helduta mahaira atera besterik ez da geratzen.

Bukatu aurretik, horrela dio sagardoaren ezaugarriak goratzen dituen bertso batek:

"Erari maite laztan batean artzen zaituzte ezpañak eta taupada gozoz barrura bultzatzen dizu mingañak gure lurreko bertsolariak ta olerkari apañak euskaldun danok osatzen degun zugaitz eder ta bikañak zure bustian ezetu ditu bere biziaren zañak."



■ ■ Hilbetean, sagardoa botiletan gordetzen da.

**Kartutxo
Pub**



S. Frantzisko, 33 ☎ 74 27 24

GARAY



**HARATEGIA
URDAITEGIA**

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

Orbea

Kafetegia

San Frantzisko 6, Tel: 74 31 17

UDA BERRI

ELGOIBAR

IRIONDO

Taberna

P. Muguruza 2. ELGOIBAR

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 tel. 74 11 89

ASTE HONETAN

Ihauteriak-Haratuszteak-Karnabalak

Zubieta, Ituren... aurten ere "Miel Otxin", "Momorrotxo", "Zanpantzar" eta beste zenbait pertsonaia berpiztuko dira. Herri hauetan gordetzen dituzte ondoen beraien ihauteri erritotak. Mitologian eta aitzinako sineskeretan dute oinarria beren ohiturek. Normalki nekazal inguruko zonaldeak dira eta badituzte berezitasun zehatz batzuk: kokapen geografikoa, ezagupide soziologikoak, hizkuntza... Tradizio duten ihauteri hauetan, urtero moztorro berdina, sinpleak, koloristak eta sinbolismoz betetakoak jutzen dituzte. Partaideek bromak edo txantxak (hirietao ihauterietan murgiltzen direnek askotan ulertzen ez dituztenak) egiteko aukera izaten dute, bertako musika, doinu eta dantzak ere izugarri garrantzitsuak izanik.

Baditugu baita ere ihauteri urbanoak deritzatenak hiri eta herri handietan egiten direnak, gure herria barne. Kasu hauetan tradizioa galduta dago eta zerbait egiten hasi denean, mundu mailan fama duten ihauterien kopia bat besterik ez da egin. Kasu askotan ingurune geografikoak adierazten digu non gauden, ez ekintza berak. Antolatzen diren ekitaldiak kopia hutsak dira, sarritan herri beraren izakerarekin zerikusirik ez dutenak. Elgoibarren ere, aintzinan, badirudi hauetako ekintza batekin ospatzen zela, dirudunek Udaletxeko saloian ihauteri moztorro dantza egiten omen zuten. Jazkerei dagokienez, gure herrietako ihauterietan, zenbait kasutan irudimena lantzeko baliogarri diren bezala, beste zenbaitetan buruhauste eta negozio bihurtzen dira: urtero des-

berdina, urte berean erabiltzeko bi edo hiru desberdin... erosi, alokatu beharra...

Badakit gizarte konsumista honetan urtero sinbologiaz eta magiaz betetako moztorro berdina erabiltzea ez dugula onartuko, baina herri batek ihauteriak berreskuratu nahi baditu, tradizioa dekretuz moztua izan denean, ezin dugu inprobisazioan utzi edo gure herriarekin zerikusi gutxi duten beste ohitura batzuk birlandatzen hasi. Ihauteri propio batzuk egin nahi baditugu, garrantzi handia du niretzat, noski, Euskal Herriko ihauteri tradizionalak aztertzea, gure herrian galdurik-lotan dauden beste tradizio batzuk arakatzea eta guzti honekin gero tradizio bihur daitezkeen "gure" ihauteriak egiten hastea. Guzti hau gauzatzeko garrantzitsua litzateke herriko mugimendutalde ezberdinen partaidetza, ihauteriak aprobetxatuz jendeak, bai herriko bizi-modua kritikatu eta egunerokotasunak gordetzera behartzen gaituen horiek adierazteko. Honekin eguneroko errutina utzi eta, trauma, arazo eta nahiak libreki espresatzeko.



SEBAS LARRAÑAGA

usoa

KAFETEGIA



Santa Ana, 6. Tel. 74 25 20

Fotero

OKINDEGIA

OPILDEGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

oizmendi

Tel: 74 00 16

TABERNA

Zertaz mozorrotuko zara?



Francisco Javier Jimenez
27 urte, langabetua

Nahikoa mozorrotzen naiz egunero. Ez, ez naiz mozorrotuko. Lehenago mozorrotzen nintzen baina orain ez, ez daukat gogorik.



Arrate Otal
36 urte, etxeoandrea

Ez naiz mozorrotuko eta normalean ez naiz mozorrotzen. Ihauteria gustatzen zait eta agian kuadrilan mozorrotuko bagina animatuko nintzateke.



Ana Astigarraga
31 urte, tabernaria

Erromatarrez, tabernako danok igual. Ia anbientia jartzen degun! Astear-tian bakoitzak nahi dabana. Mutilak neska jantzi nahi ditut.



Xabier Arnaiz
26 urte, langabetua

Zaldun jantziko naiz. Lehenagotik pentsatuta neukan. Urtero kuadrilan jantzi izan gera baina hemendik aurrera bikoteka.



Pello Ezkurra
32 urte, masajista

Azken orduko zeozer prestatuko dogu. "Pintxo moruno"z disfrazatzea pentsatu gendun, baina azkenian ez. Asteartean jantziko gera, kuadrilan.



Sorkunde Juaristi
30 urte, irakaslea

Umia euki nabanetik umiak jantzen naiz; lehen lagunekin baina gero laga egin gendun. Seguraski artzai jantziko gera, asteartian.

Gokostiza
DIETETIKA

ZABALDU BERRIA

- Sendabelarrak
- Kosmetika naturala
- Dietetika
- Eskolako materiala...

Plaza merkatua 7-8-9

I LEAPAINDEGIA

FADEK
SOLARIUM

Erosario Kalea, 35 behe
☎ 74 26 92 Elgoibar

NAVA
INPRIMATEGIA

Jupkesokak

Edozein lan mota inprimatzen dugu

Sta. Ana, 44
Tel 74 44 51

■ Galiza etxeak zuzendaritza berria du

Galiza Kultur Etxeak bazkideen batzar orokorra egin ondoren zuzendaritza batzorde berria aukeratu zuen. Honoko hauek osatzen dute zuzendaritza berria: presidentea Venerando Cid izango da, presidente ordea Manuel Astray, idazkaria Fernando Suarez, idazkari ordea Andres Hierro, diruzaina Ceferino Arnaiz, liburuzaina Jose Fernandez, erosketa burua Francisco Iraola, bozeramaleak Angel Conde eta Jesus Fernandez eta harreman publikoetarako arduraduna Celso Romero.

■ Zazpikik EGINen albistegiak emango ditu

Zazpiki irriatiak pasa den urtarrilean egindako bileran "EGIN irriatiak jasaten duen eraso eta neurritz kanpoko jarraipena direla eta, komunikabide horrekin elkartasuna" adieraztea erabaki zuen. Horrez gain, EGIN irriatiarekin zenbait informatibotan konexioa egitea erabaki zuten. Konexioak Zazpiki Irratian albistegiak egiten hasi arte mantenduko dira.

■ Mozorro lehiaketa

Larunbatean, karnabal egunean, mozorro lehiaketa ospatuko da Plaza handian. Gaueko 12etan, Musitxa txarangak lagundutako desfilearen ostean, mozorro lehiaketari hasera emango zaio. Taldekako mozorro onenak 35.000 pezetako saria jasoko du eta bigarren gelditzen denak 30.000 pezeta. Barkarkako sailean irabazleak 15.000 pezetako saria jasoko du eta ondoren gelditzen denak 10.000 pezeta. Lehiaketaren ostean *Lisker* taldeak dantzaldia eskainiko du Foruen plazan.



Urte askotan tren estazioko buru izan diren bi gizon hauek jubilatuta berri dira eta herritar guztiei agur esan nahi diete urte hauetan egindako lana ahalik eta hobetoen egiten ahalegindu direla esanaz. Ezkerrekoa Saturio Fernandez Seco da, estazioko ordezkari buru, eta eskumakoa Carlos Fernandez Martin, estazio buru titularra. Carlosek 17 urte eman ditu estazioko buru bezala eta trenaren munduan sartuta 42 urtez jardundu. Saturiok 36 urte daramatza tren lanetan eta 25 urte inguru estazio buru bezala. Debako tren geltokian iazko abuztuan ateratako argazkian, Saturio eta Carlos Eusko Trenbideak enpresaren 100 urteurreneko tren turistikoan, itxura emateko Carlosek gezurretako bibotea jantzita duela.



Txankakua elkarteak neguko zozketan saritutako 6 zenbakietatik lau baino ez dira agertu. Sarituek 40.000 pezetako eros-txeke bana jasoko dute eta Txankakuako edozein dendatan gastatu ahal izango dute. Argazkian ditugu ezkerretik eskumara Antxon Garay Txankakua elkartekoa, Belen Maidagan, Benita Juaristi, Gloria Arangurenen ordezkari bere alaba Igone eta Iñigo Barrenetxea sarituak eta Mari Jose Estibariz, Txankakua elkartekoa hau ere. Agertu ez diren bi sarien zenbatekoa hurrengo zozketari gehituko zaio.

Gestio Eskolak eta Industria Sailak elkarrekin egingo dute lan



Elgoibarko Gestio Eskolak eta Eusko Jaurlaritzako Energia eta Industria Sailak hitzarmen bat sinatu dute Deba Beheko enpresa eta garapen promozio ekintzak bultzatzeko. Hitzarmenari esker, Gestio Eskolak 20 milioitako laguntza jasoko du Industria Saitetik. Joan den hilaren lehen Gasteizen sinatu zuten akordioa Gestio Eskolako zuzendari den Jose Mari Ulaziak eta Jaurlaritzako Industria politikarako sailburuordeak. Honen bidez

Industria Sailak eta Gestio Eskolak batera lan egingo dute hainbat ataletan. Horrela enpresetako giza baliabideen zuzendaritza estrategikoaren teknika berrien ezarpenean lan egingo dute, zuzendari gazteak heziz eta daudenei erreziklatzeko aukera emanaz. Elkarren arteko lan-egite honen helburua, Deba Beheko egitura ekonomikoa indartzea litzateke, bide batez, enpresen iharduera promozionatuz.



Ihauterrien aintzindari izan ditugu gaiari buruz Kultur Etxean eman diren bi hitzaldi. Bata Antxon Agirre ikerlariak emandakoa izan zen eta bestea, Koldo Lizarralde etnologoak eskainitakoa. Argazkian Antxon Agirre ihauteriei buruz berbetan.

■ Euskara lantzeko laguntzak

Urtero bezala Udalak euskararen inguruan antolatzen diren ikastaro berezietarako: barnetegiak, Udako Euskal Unibertsitatea, UNEDeko itzulpen masterrak etb. diru laguntzak emango ditu. Informazio gehiago nahi duenak Udaleko euskara zerbitzura jo dezala. Nafarroa enparantza 3, Kultur Etxea. Tel: 74 43 66.

■ HB ez dator bat PNVren politika industrialarekin

HBk prentsaurrekoa eman zuen aurreko plenoan alkateak esandakoari erantzuna emateko. Alkateak "industriarako lurren arazoari alternatibarik eskaintzeko gaitasunik ez edukitzea" leporatu baitzion HBri. "Elgoibarko PNV - adierazi zuten HBko zinegotzikerrealitatearekin bat ez datorren irudia ematen ari da, izan ere, inoiz burutuko ez diren proiektuak bultzatzen dituzte helburu elektoralistak lortzeko". Gainera, "PNV bere gain hartu beharko luke herriko hainbat enpresa Itziarko poligonora alde egin izanagatik ardua". Herri Batasunak Lerungo futbol zelaian, San Pedroko fabrika eta Lagun enpresaren aurreko zatian industria zonaldea eraikitzea proposatu zuen. Horrez gain, Urasandi, Lerun, Arriaga 1 eta 2, Oletako parte eta Aitzgorriko zona, industrien kokapenerako aproposak zirela aidarazi zuen. HBk dionez, "proiektu hauek bat datoz Eusko Jaurlaritzaren irizpideekin. Aitzitik, ez dira bideragarriak ibaiaren mozketa, San Lorenzo eta Olaso-Gain-eko proiektuak". HBren iritziz, Eusko Jaurlaritzak proiektu hauek baztertzen ditu ibaiaren mozketak gastu handia ekarriko lukeelako, San Lorenzo industri zonalde bihurtzea bizi kalitatearen kalterako izango litzatekeelako eta, Olaso-Gainen industriarako lur gutxi dagoelako.

Santa eskean baserriz baserri

San Pedro, San Lorentzo eta San Migel auzoetako 60 baserri koplatu zituen Elgoibarko Izarra elkarteak antolatutako Santa Ageda koruak. Antolatzaileak benetan pozik azaldu dira izandako arrakastarekin eta eskerrak eman nahi dizkie San Migel eta San Lorentzoko elkartei, Santa eskean ibili zirenei eta koplatu zituzten baserritar guztiei, benetan eskuzabal portatu baitziren denak. Datorren urtean ere ohitura zahar horri segida emateko asmoa azaldu digute antolatzaileek.



Santi Kortaberriaren omenez

Larunbat goiz osoan zehar herriko auzo eta kaleetan koplaka aritu zen Santa Agedako korua. Aurten 70 inguru lagun ibili dira eskean eta seguruen iaz bildutako diru kopurua berdintzea edota gainditzea lortu dutela.

Baltasar elkartean lagun arteko bazkaria egin zuten koruan kantari ibili ziren guztiek, eta bazkalostean, Santi Kortaberriaren alargunak, omenaldi txiki bat jaso zuen bere senarraren kantu lagunaren eskutik. Omenaldiarekin Santik egindako lana gogoratu nahi izan zuten.

AZKUE



Ikastolako haurrak ere koplatan aritu ziren

Santa Ageda bezpera egunean, haurrek ere izan zuten txoko bat Santuari koplaka aritzeko. Ikastolako haurrek, irakasleek lagunduta, kalejiran kantari zeharkatu zuten herria. Errosario kalean, Amabirjinaren parean, koplak eta Salbea abestu zituzten. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, haurrek poz pozik jardun zuten kantuan. Plaza handian, aurtengo Santa Agedaren jardunari amaiera eman zioten.



Guassa Juanjoren eskutik

- Juanjo, lehenago Jazz-Berri dantza-lekuari indar berria eman zenion. "Ruta del bacalao" deritzonaren barruan egongo al da *Guass-a*?

- Argitu nahi dudana da *Guass-a* ez dagoela "ruta del bakalao" delakoaren barruan. Jartzen dugun musika, musika "disco" da, "bakalao" a tarteka eta bestelako musika ere bai.

- Zergatik itxuraldaketa hau?

- Nik dantzalekuaren ardura hartu dut, dena nere ardurapean dago. *Guass-a* diskoteka bihurtu dut eta ez herritarrentzat azken txokoa bakarrik. Hau diskoteka bat da eta horren itxura eman diot.

Giro ona egongo da eta edonongo jendeak ondo pasatzeko leku bat edukitzea nahi izan dut.

- Neskak barra ostean, neskak dantzan, neskak erropak gordetzen..., ez al da neska gehiegi?

- Ez. Neskak barra atzean ego-

teak, esaterako, erreakzio ona sortu du. Denok esan ohi dugu neskak goxoagoak direla, ez? Baina neskez gain, mutilak ere badaude.


"Sexy gogo" ei buruz, esan, telebistan lan egiten duen dantza talde bat dela. Beraien funtzioa diskoteka animatu eta jendea dantzara gonbidatzea da.

- Zozketek jarraituko al dute?

- Bai. Igande arratsaldetan egiten dugun joku bat da. 250.000 pezetatik hasi dugu jokua eta kopurua hau pilatzen joango da milioi erdira arte. Behin kopuru horretara heltzean, sari hori atera arte aukerak emango ditugu.

Bukatzeo, Juanjok ihauteri hauean *Guass-a* guztiontzat zabalik egongo dela jakinarazi nahi dizue eta bertara hurbil zaitezten gonbidatzen zaituzte herritar guztiak.

Azken egunotan denon ahotan egon den gai bat dugu eskuartearen: *Guass* dantzalekuaren irekiera eta jasan duen itxuraldaketa. Zer esana sortu du *Guass*ak, hortaz dudarik ez dago. Guztiaren arduradun eta egile Juanjo izeneko donostiar bat da. Zigarroa eskutan, beti beltzez jantzita, ilea ere beltza eta koleta batean bilduta duena.



EL ALMACEN DE ELGOIBAR

Altzariak

ESKEINTZA BEREZIAK

Erakusketa aldaketa dela eta era guztietako sofa eta tresiloetan BEHERAPENAK

Siloi zaharra ekartzen baduzu 5.000 pta jasoko dituzu !!



Erosi ala ez zatoz gu bisitatzera!

Urasandi, 2. Tel.: 74 29 41 ELGOIBAR

Ana Aizpiri:

“Telebistak giza komunikazioa aldatu du”

Euskal Telebista sortu eta denbora gutxira hasi zen lanean Ana Aizpiri Iurretako estudioetan. 32 urte besterik ez baditu ere ETBko kazetari beteranoenatariko bat da. Gaur egun Anak Nazioarteko saila

zuzentzen du. Bosnia eta Palestinatik datozen albisteak alde batera utzi eta BARRENe kin hitz egin du Eibarren bizi baina izatez Sallobente auzokoa den elgoibartar honek.

- Zeintzu dira orain arte kazetaritza munduan eman dituzun pausuak?

- Kazetaritzako hirugarren maila bukatu eta Euskal Telebistan hasi nintzen lanean. Orduan, 1983.ean, ETB sortu berria zen. Handik gutxira oposaketak gainditu nituen eta gaur arte bertan lanegin dut. Haseran eguneroko informatiboetan jardun nuen eta beranduago “Hitz eta Pitz”, “Munduan zehar” eta “Erreportari” programetan aritu izan naiz. Momentu honetan informatiboetako Nazioarteko saila zuzentzen dut.

- Beti telebistan egin al duzu lan?

- Bai. Komunikabide bakoitzak bere ezaugarri bereziak ditu eta irratia eta prentsa ere oso interesgarriak iruditzen zaizkit. Hala ere, barrutik telebista bakarrik ezagutzen dut.

- Nazioarteko albisteak sarritan landu dituzu; hori al da gehien gusatzen zaizun atala?

- 10 urte hauetan denetarik egin dut telebistan. Nazioarteko



“Telebistak imajinaziorako leku gutxi uzten du”.

albisteak askotan izan ditut esku artean eta, egia esan, beti gustatu izan zaizkit.

- Nolako komunikabidea da telebista?

- Irudiek mugatzeko izugarritzko ahalmena daukate. Irratiak ez bezala, telebistak leku gutxi uzten du imajinaziorako. Telebistaren beste “gaitz” handi bat denbora da. Eguneroko informatiboetan albiste bakoitzak minutu bat

inguru irauten du eta denbora tarte horretan gauzak ondo esplikatzeko ez da batere erraza izaten.

- Zeintzuk dira zure lanbidearen alde onak eta txarrak?

- Gure lanbidea agintetik oso hurbil dago eta horregatik boteretik distantziara egotea beharrezkoa da, batez ere gure duintasuna gorde ahal izateko.

Bestalde, telebista-

ren eraginez pertsonen arteko komunikazioa aldatu egin dela esango nuke, hizkuntza berri bat sortu du. Adibidez, telebista dela eta ez dela etxean edo tabernan gutxiago hitz egiten dugu, eta hori, noski, ez da ona.

- Alde txarrak bakarrik al ditu?

- Ez, ez. Telebista komunikaziorako tresna da. Munduan gertatzen dena jakiteko eta beste herri eta kulturen berri izateko oso baliagarria da.

- Zeintzuk dira zure helburuak kazetari bezala?

- Nire nahirik handiena ikusleek informazioa ondo hartu eta uler dezatela da, eta horretarako lana txukun egin behar da. Telebista ondo dominatzea gustatuko litzaidake.

- Joango al zinateke Bosniako gerrara?

- Bai, beldurra eta errespetua ez lizkidake inork kenduko, baina ez nintzateke atzean geldituko.

AITOR ZABALETA

BATA ala **BESTEIA**

Izaskun Estibariz
Pitxintxu dendakoa



- **Noiztik karnabaletako mozorroak egiten?** ▶ 12 urte.
- **Zu zeu mozorrotzen al zara?**
▶ Bai, ahal dudanean bai.
- **Astearte arratsaldea ala larunbat gaua?** ▶ Ni mozorrotzen naiz larunbat gauean, astearte arratsaldean, igandean Tolosara baldin banoa,... Nahiago dudana Elgoibarko astearte arratsaldea eta gaua dira.
- **Elgoibarko ala Tolosako ihauteriak?** ▶ Zeharo desberdinak dira. Elgoibarkoak gustatzen zaizkit, Tolosan desberdinak dira. Oso politak.
- **Garestia al da enkarguzko mozorro bat?** ▶ Denetik dago. Badaude errezak eta merkeak eta zailagoak eta garestiagoak.
- **Jendeak zer eskatzen du gehien?** ▶ Denetik. Orain gehien saltzen dena pelukak dira jendeak zeharo desberdintzen dituelako disfrazak eta gero ume txikientzako disfrazak gehienbat.
- **Zertaz ez zinateke inoiz mozorrotuko?** ▶ Monstruo edo printsezaz.
- **Liburu bat?** ▶ Orain irakurri dudana. Artikoari buruzkoa da.
- **Bazkalostean siestarik bai?** ▶ Ez.
- **Bajo Ulloa ala Almodovar?** ▶ Ez bata ez bestea.
- **Oraingo ala ume zineneko ihauteriak?** ▶ Oraingoak ere ondo daude.
- **Bete ez duzun amets bat?** ▶ Poliki poliki betetzen dituzu zure ametsak edo beteko ditugu.
- **Garagardoa alkoholduna ala alkoholik gabea?** ▶ Ez. Ardo piska bat.
- **Pertsonaia anonimoak ala ospetsuak?** ▶ Anonimoak.
- **Zer ezin duzu ulertu?** ▶ Orain, adibidez, munduan dauden gerrak: Bosnia, Afrika eta Hego Ameriketako gerrak.
- **Diru mordoa tokatuz gero, lanean jarraituko al zenuke?** ▶ Bai, baina beste era batera, neurrian. Ordu gutxiago.
- **BARREN ala ARGIA?** ▶ Ezin da konparatu ez? Desberdinak dira. Gainera nik ez dut Argia irakurtzen eta ezin ditut konparatu.


EDU SANZ

Felix Irureta

(Irureta II) 1902 - 1980



- Zestuan jaio zen 1902. urteko azaroaren 6an.
- Hiru anaiak ziren pilotari, baina bera izan zen ezagunena.
- Gazte zelarik pilotakada batek sudurra apurtu zion eta hortik etorri ziotzaion "Zestuako txatua" gaitzizena.
- 1920. urtean hasi zen esku pilotan. 1927tik 1934ra bitartean nabarmendu zen joku gogor eta izugarriagatik.
- Ezker besoa sendo-sendo zeukan eta bere pilotakadak katapultak antzekoak ziren. Eskumako besoa, berriz, nahiko makala zeukan.
- Bilboko kazetari batek "terremoto" eta "huracan" gaitzizenak jarri zizkion zeukan indarragatik.
- Urte askotan "Mondragones" izan zuen bikote lagun. Artazok, Urzelaik, Txapastak eta beste batzuek ere jokatu zuten Iruretarekin bikotea osatuz.
- Anekdotak gisa aipatu, partiduko 5 edo 6 abarketa pare apurtzen zituela.



*Urtarrilaren 18an hil zen **BENITO SAEZ MEDRANO**ren emazteak eta ahaideok, **ESKERRAK** eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi, eta samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.*

MOTZAK

Fondoko eski ikastaroa

Morkaiko Mendizale elkarteak fondoko eski ikastaroa antolatu du datozen hilaren 19 eta 20rako. Ikastaroa Belaguan burutuko da eta plazak mugatuak izango dira. Joan nahi duten bazkideek 8.500 pezeta ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 9.500 pezeta. Prezioaren barne daude afaria, ohea, gosaria, tresneria eta pistetako sarrera. Izena emateko Morkaikoren lokaletik pasa edota 74 02 97 telefonora deitu. Izena ematerakoan norberaren altura, pisua eta oinetakoen zenbakia eman beharko da.

Ego-Tokiko korrikalariak Euskadiko txapelketan

Igande honetan, hilak 13, Elgoibarko Ego-Toki atletismo elkarteko zortzi korrikalariak Lakuntzan izango den Euskadiko kros txapelketan parte hartuko dute. Gizonezkoen junior lasterketan Imanol Santos eta Jorge Gonzalez arituko dira. Argiñe Gabilondo eta Isabel Ruizek senior-promesa mailan jardungo dute eta maila berean baina gizonezkoetan, Alberto Revuelta, Javi eta Luis Santamaria anaiak eta Roberto Garcia arituko dira. Ego-Tokiko arduradunen nahia, Euskadiko kros txapelketa honetan Alberto Revueltak lehen hiru postuetako bat lortzea litzateke. Horrela balitz Euskadiko selekzioan sartuko litzateke eta Espainiako txapelketan parte hartzeko aukera izan lezake.



Bittor Mujika:

"Promozioko postuetan sartzeko aukera daukagu"


■ **Bittor, eibartar bat elgoibartarren artean entrenatzaile. Zer moduz moldatu zara?** - Ondo, jende ona dago. Ekipoa oso jatorra da eta klubarekin ere harreman onak dauzkagu. Aurrera begira? Hori eurak esan beharko dute.

■ **Zein talde entrenatu duzu lehenago?** - Lehengotik Eibarren, alebinez eta benjaminekin. Gero zazpi urte Eibar Urko entrenatzen, bi urte Mutriku eta aurtan Elgoibarren.

■ **Iaz Haundi 2Bn, eta aurtan 3. mailan.** - 2. mailan mantentzia oso zaila da. Gure asmoa lehenengo lau postuen artean sartzia da, "play-off" a jokatzia. Ia igotzea lortzen dogun. Badakigu zaila izango dala.

■ **Taldea 7. postua dago.** - Aukera badaukagu oraindik. 6.rekin berdinduta gaude eta 3.a gugandik bi puntutara dago. Momentuz ez da diferentzia haundixa. Liga asko gelditzen da, 13 partidu, eta 26 puntu daoz jokatzeko. Orain "a tope" ibiliko gera eta ia sartzan geran lehenengo lau postuetan.

■ **Zer moduz Mintxetara aldaketa?** - Zelaia haundixaua da eta esfortzu gehiago egin behar da distantziak luzeagoak direlako. Problema euki



ditugu baina sei hilabete pasatu dira eta ohitu gera. Jokua ere desberdina da. Lerunen futbola indartsua zan, lokatz artekoa. Hemen futbolistak teknika izan behar du eta ordu gehixao egiten dira baloiarekin. Denboriarekin hobetuko dogu eta gaztiekin errazago ikasiko dabe.

■ **Desabantailarik ikusten al diozu?** - Mintxetan jendea jokalariekin urrunago dago; Lerunen futbolisten gainian egoten zan.

■ **Arbitroak gogor dabilta. Nola daramazue txartelen kontua?**

- Txarto. Lehen falta zanagatik orain txartela ateratzen dabe. Tarjeta bakoitzagatik 3.000 edo 3.500 pezeta ordaindu behar dira eta gure direktiba ere joan da protestatzera. Joan zan igandean hiru jokalarik bost txartelekin euki gendun jokatu barik eta sei jokalarik dauzkagu lau txartelen bigarren zikloan.

■ **Hurrengo partidua?** - Zumarragan, Urolaren aurka. Elkar ezagutzen dogu eta ribalidate haundixa egongo da. Irabazi? Ez da erraza izango eta puntu bat ere ez da txarra izango.

• Adina: 41
• Eibar S.D. ala C.D. Elgoibar? Momentuan C.D. Elgoibar.
• Zertaz moztortuko zara? Partidua larunbatean bada, jantziko naiz baina ez dakit zertaz.



Classy

LIBURUDENDA



★ OPARIAK ★ FOTOKOPIAK ★ FAX PUBLIKOA ★ ENKÜADERNAKETAK
★ ESKOLARAKO MATERIALA ★ TESTU ITZULPENAK INGELESERA

SAN FRANTZISKO 56.

TEL.FAX: 74 02 40

ELGOIBAR



INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

Nesken boleibol taldea sortu berri da

Kirola gizonetzkoen feudo bakarrik ez denaren hainbat adibide dauzkagu azken aldian herrian. Nesken futbol taldea daukagu, nesken eskubaloi taldea ere, eta gero eta neska gehiago aritzen da atletismoa, judoa, saskibaloia, xakea, txirrindularitza, eta edozein eratako kiroletan.

B atxillergo Institutuko neska talde bat boleibolean jokatzen jardun eta gero, Elgoibarko nesken boleibol taldea sortzea erabaki zuten. Taldea sortu eta gero, entrenatzaile bila hasi ziren. Kiroldegiko zuzendariarekin eta Manu Mora gimnasia irakaslearekin hitz egin ondoren, azken honek entrenatzaile bat proposatu zien: Iñaki Guede. Iñakiri ezaguna zaio boleibola, urtebetez jokatzen jardun baitzuen. Gaur egun, Iñakirekin batera Javier Leon ari da neskek entrenatzen.

Gabonak gozotik neskek entrenatzen hasi ziren eta asmoa beraien artean jokatzea eta urte hau teknika ikasten ematea. Oraindik ez daukate probintzia mailako ligan parte hart-



■ ■ Taldeko batzuek falta diren arren hona hemen neskek eta entrenatzaileak.

zeko moduko talderik baina La Sallekoen aurka partiduren bat jokatzeke asmoa ei dute. Ligan jokatzen hasiko balira kadete mailan egingo lukete, taldeko neskek 14-16 urte bitartekoak baitira. Momentuz 15 neska daude, boleibolean aritzeko nahikoa eta soberan. Partiduetan sei kidek jokatzen du talde bakoitzeko eta "bankiloan", noski, nahi adina egon daitezke.

Entrenamenduak astean birritan egiten dituzte, Kiroldegian, asteazken eta ostiralean. Entrenamenduetan oinarrizko ariketa praktikoak

egiten dituzte, duten maila nahiko baxua baita oraindik. Helburua, banaka jokatzen jakiteaz gain, taldeka jokatzen ikastea da.

Materialea, oinarrizkoa baino ez dute oraindik. Posteak eta sareak Kiroldegiak lagatakoak dira eta baloiak ere eskuratu dituzte. Batzuetan izan dute arazorik saskibaloi eta pilota partiduak tokatu baitzaizkie beraien entrenamenduarekin batera, baina dena den, hasi baino ez dira egin eta aurrera begira taldea mantentzea eta ahal bada ligan hastea da beraien helburua.

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan

Larunbata 12

16,00: Elgoibar - Intxaurdi (Neskek)

Igandea 13

12,00: Eibar Urko - Sestao (Ohorezko maila)

FUTBITOA Urasandin. Igandea 13

10,00: Chelsea - Berrogei Duro

10,00: Resto del Mundo - Lanbroa

11,00: Arroak - Xirula

11,00: Mimox - Pedrusko

12,00: Karkis - Kosakos

12,00: Oraiko Kafe - Hunde Verboten

ARETO FUTBOLA Kiroldegian. Ostirala 11

22,00: Elgoibar. - Hogar Etrementeño (2. maila)

23,00: Elgoibar. - Bar El Nido (1. maila)

EMAITZAK

ESKUBALOIA

Elgoibar 26 - Leizaran 14 (Kadeteak)

Elgoibar 39 - Urnieta 10 (Jubenilak)

XAKEA

2. maila: Elgoibar A 1,5 - San Andres B 2,5
Elgoibar B 0 - Chaturanga 4

3. maila: Elgoibar 2 - Bergara 2

FUTBOLA

Haundi 4 - Erandio 0

Elgoibar 5 - Mondragon 0 (2. errejionala)

Elgoibar 2 - Ondarru 1 (Jubenilak)

Elgoibar 2 - Ordizia 2 (Kadeteak)

Urola 2 - Elgoibar 1 (Infantilak)

Ostarbe 1 - Elgoibar 3 (Neskek)

ESKUBALOIA

Asador Dana Ona 8 - Elgoibar A.F. T. 2

Pescados G.J.A. 4 - Elgoibar A.F.T. 8

1993ko KIRO



JUDOA

Angel Mari Albizu, 24 urte


- Euskadiko selekzioko partaide.
- Burdeos-eko txapelketan 3.a.
- Euskadiko Sambo Txapelduna.
- Gipuzkoako Txapelduna.
- Euskadiko Txapelduna.
- Eibarko Nazioarteko XXII Torneoan 2.a.
- Lisboako Nazioarteko Torneoan txapelduna.
- Anglet (Frantzia)ko Torneoan 3.a.
- Sestuko IV Txapelketan 2.a.



PILOTA

Juan Inazio Ansola, 25 urte


- Sigmako Torneoko txapelduna.
- Deba arroko txapelketan semifinalista.
- Irun eta Usurbileko Txapelketan partehartzaile.
- Añorgako Torneoan final laurdenetaraino iritsi zen.



TXIRRINDULARITZA

Alexander Galarraga, 16 urte

- Kadete mailako Euskadiko txapelduna.
- Espainiako txapelketan 14.a.
- Zegamako txirrindulari proban 2.a.
- Segurako Txirrindulari proban 3.a.



TRIATHLOIA

Iñaki Konde, 42 urte

- Euskadiko triatloia C mailan burutu zuen. (3.800 igeri, 130 bizikletaz eta 30 korrika)
- Duatloian Euskadiko zirkuitoa hirugarrena bukatu zuen (A mailan : 40-50 urte bitartean).



ESKUBALOIA

Alazne Rementeria, 27 urte

- 10. urtea Arrate Amaña ekipokoa jokutzen.
- 1. dibisioan jokatu eta igoera fasea jokatu zuten Molins del Rey (Kataluña) eta Eibarren



ATLETISMOA

Karmen Perea, 18 urte

- Pista estalia: Brontzezko domina Espainiako Junior txapelketan.
- Krosa: 8.a Euskadiko txapelketan.
- Aire libreko pista: 800 metrotako Gipuzkoako txapeldun absolutua.
- Marjakk: 800 m. 2.15.41
1.500 m. 4.48.73



EHIZA

Patxi Arriola, 29 urte

- Gipuzkoako Oilagorren txapelketan txapelduna.
- Espainiako oilagorren txapelketan laugarrena.




FUTBOLA

Joseba Etxeberria, 16 urte

- Euskadiko selekzioa (SUB-17):
Madrid 3 - Euskadi 3 (2 gol)
Euskadi 5 - La Rioja - 1 (2 gol)
- Espainiako selekzioa (SUB 16):
Suecia 1 - España 2 (gol 1)
España 5 - Israel 1 (gol 1)
- Errealeko jubeniletan jokalaria. (16 gol).

OLARI ONENA



MENDIA

Pablo Barrenetxea, 25 urte

Aitor Esnaola, 24 urte.

- Nanga Parbat espedizioan parte hartu zuten 8.000 metrotik gorako mendia egin zuten lehen elgoibartarrak izan zirelarik.



ARETO FUTBOLA

Cesar Arriola, 29 urte

- 92-93 Futbol Areto txapelketan jokalaria onena aukeratu zuten beste ekipoetako entrenatzaileek partiduz partidu ematen dituzten puntuaketaren arabera.



IGERIKETA

Judith Ajubita, 13 urte

- Lehen postua Eibarren, 400m. krolean
- Lehen postua Azpeitin, 100m. krol eta estiloetan.
- Lehen postua Oñatin 200 m. krolean.
- Lehen postua Legazpin 100 m. krolean. 1993. urtean marka personal guztiak hautsi ditu.



HERRI KIROLAK

Harrijasotzailea

Javier Arriola, 20 urte

- 21 urtetik beherakoetan Euskadiko eta Gipuzkoako txapelduna.
- Adin librean: Bigarren mailako txapelduna eta Euskadiko bigarrena.
- Elgoibarren 105 jasoaldiko marka 3 jasoaldigatik hobetzea lortu zuen.



KARATEA

Josu Duran, 10 urte

- Lehen postua Azkoitin jokaturako probintzia arteko txapelketan.
- Lehen postua bi aldiz Markinan jokaturako probintzia arteko txapelketan.
- Parte hartu duen txapelketa guztietan lehen postuan geratu da.

BARRENek Udal Kirol Zerbitzuaren laguntzaz 1993ko Elgoibarko kirolari onena aukeratzea proposatu du. Kirolari onena zein izan den aukeratzeko izen hauek proposatu dizkigute Elgoibarko Kirol elkarteek. Irakurleok aukeratuko duzue onena eta bidali erantzuna **BARRE**Nera. Erantzuten duzenon artean **SARI EDER BAT** zozketatuko dugu.

ZEIN DA 93ko KIROLARI ONENA?

IZEN ABIZENAK

HELBIDEATel.....

Bibliako taldea: Jainkoaren hitzarekin indartuz

Bibliako taldea, izenak adierazten duen bezala, Bibliaren inguruan eratutako taldea da. Sortzaileak Maite Vallejo eta Enrike Larrañaga senar-emazteak izan ziren, eta Bibliak gizarteko alor guztietan duen garrantziak bultzatuta sortu zuten taldea.

Biblia, oinarrizko liburua dela aintzat hartuta, 6.850 inguru hizkuntzetara itzuli dela jakinda, Guttenberg-ek inprimatu zuen lehen liburua izaki, mendebaldeko gizartearen kultura eta giza eskubideak ere Biblian oinarrituta daudela ikusita, guzti hau abiapuntutzat hartuta eta interes handi batek bultzatuta, herritar talde bat elkartu zen Bibliaren inguruan. Maite Vallejo eta Enrike Larrañaga izan ziren bultzatzaileak eta Bibliari buruzko ikastaro batzuek egin ondoren, hauen inguruan fededun gehiago biltzen joan ziren. Mezatan igandero, eukaristian, Bibliako lau liburu irakurtzen direnez, asmoa, irakurketa horiek jendeari hurbiltzea izan da. Biblia irakurtzen, Jainkoaren hitza entzuten eta igandeko eukaristia bizitzen eta indartzen ematen dute ostegun iluntzetako tartea.

Zazpi urte darama talde honek martxan eta urrian hasten dute ikastaroa. Urtero urtero, ikastaro edo ikasturteari hasera



■ ■ Bibliak konpromezuak aurrera eramatekoindarra ematen die.

emateko, Biblian jakitun den norbait ekartzen dute. Aurten Jerusalem-en Bibliari buruzko ikerketak egiten egon den Periko Nuñezen bisita izan dute, iaz Jose Antonio Pagola egon zen, beste urte batean Eusebio Beldarrain etb. Hitzaldi hauetara jende ugari joan ohi da eta astero astero, nahi duenak, normalean dozena bat kidek, mezatan irakurritako lau liburuak sakontzeko aukera izaten du.

Bibliako taldea astero biltzen da parrokiak Ubitarten dituen lokaletan. Bilerak gaueko 9ak aldera hasten dira eta ordu t'erdia inguru irauten dute. Bibliako taldea parrokiako kontseiluko kide da. Taldekide gehienak emakumeak dira eta erabiltzen duten metodologia lau hizkitan labur liteke, BETI: Biblia espiritualki taldean irakurri. Biblia irakurri, isiltasu-

nean egon eta bakoitzarengan oihar-tzun ezberdina sortzen dute en-tzundako hitzek. Hortik aurrera Jainkoak bakoitzaren buru barruan lan egiten du bere egia zabaltzeko. Horrek konpromezuak hartzeko indarra ematen die taldekideei eta bizitzeko era bat eskaintzen. Taldea edozeini irekita dago eta Biblia sakondu nahi duenak badauka nora jo.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1986

Kide kopurua: 12


Arduraduna: Enrike Larrañaga eta Maite Vallejo

Iharduera:

Biblia taldean irakurri

Bilerak: Ostegunero

Lokala: Ubitarte 4, behea



Ondo pasa Karnabalak!

Ihauterietarako prest!

Oso goiz, goizegi agian, harrapatu gaituzte aurten ihauteriek. Azken orduko mozorroa egitera ohituta daudenek, arin ibili beharko dute mozorroa garaiz prestu edukitzeko. Horrela izan ala ez, ihauteria umorea eta dibertsioa kaleratzeko sasoia da eta beraz, badakizue zer egin behar den!

Garai batean astearte arratsaldean bakarrik ospatzen zen karnabala edo ihauteriak baina gaur egun larunbat gaua egun "fuertea" bihurtu da. Garrantzitsuena kalera irtetea da, eta egun hauek eskaintzen duten deshini-

bizio aukera aprobetxatzea. Badira zenbait urte ihauterietako larunbat gauean mozorro lehiaketa ospatzen dela eta aurten ere horrela izango da. Udalak sari garrantzitsuak emango dizkie mozorrorik onenei. Astearte arratsaldean ere ez da faltako mozorrotutako haurren ohizko kontzentrazioa.

Dena den, gai honetan jakitunak direnek, benetako izpiritu karnabalerora, asteartekoa dela esaten dute. Arratsaldetik, kaleak mozorrotutako pertsonaz betetzen dira eta imajinazio eta umore handieneko mozorroak astearte gauean ikusten direla esaten dute.



■ ■ Ihauteriak festa eta umorea kaleratzeko sasoia da.

**Astelehena 14,
SAN BALENTIN EGUNA.
Igandean, 6-8etara ZABALIK duzu MIMOX.
ZATOZ ZURE OPARIAREN BILA!! Tel 74 42 13**

12 LARUNBATA

19,00 KALEJIRA

MAUSITXA Txarangarekin.

23,00 KALEJIRA

MAUSITXA Txarangarekin.

24,00 MOZORRO DESFILEA

MAUSITXA Txarangak lagunduta.

✓ Plaza Handitik hasita

Bukaeran **MOZORRO LEHIAKETA**

Ondoren **DANTZALDIA**

LISKER taldearekin

✓ Plaza Handian.

13 IGANDEA

10,30 TXISTU KALEJIRA

Txistulari Udaltaldea eta Inazio Bereziartua Musikaeskolako ikasleak.

14 ASTELEHENA

20,00 ANDRAIZEREN BILERA

✓ Kultur Etxean

15 ASTEARTEA

17,30 MOZORROEN
KONTZENTRAZIOA

✓ Plaza Handian.

18,00 KALEJIRA

MAUSITXA Txaranga eta
HANKALUZEEKIN

18,00 DANTZALDIA

✓ Zaharren biltokian.

19,30 SUZKO ZEZENA

✓ Plaza Handian

16 ASTEAZKENA

18,30 IKASTAROA

Heziketa ertainetako gurasoei
zuzendua

Gaia: Sexu Heziketa

Hizlariak: EHUKO sexologoak.

Antolatzailea: Elgoibarko Institutua

✓ Kultur Etxean

18 OSTIRALA

19,05 ANJE DUHALDEREN
KANTALDIA

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: DEBABA

Euskaltegien Mankomunitatea.

19,30 ODOL ATERALDIA

✓ Anbulategiko lokalean

19,30 HITZALDIA

Gaia: Medizina naturala

Hizlaria: Mari Sol Saez. Naturopata
eta iridiologoa.

✓ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

"El mariachi"

Zuzendaria: Roberto Rodriguez

✓ Udaletxeko Biltzar aretoa

Antolatzailea: Ongarri zine kluba

OHARRA:

Aste bukaera honetan,
ihauteriak direla eta ez da
zinerik egongo Udaletxeko
aretoan. Datorren astebukaeran
(18-19-20), "El Mariachi"
filmea emango dute.

Gabi jatetxea

Nafarroa plaza ☎ 74 12 30

Mozorrotuta datozenen artean
BI LAGUNENTZAT AFARI BAT
zozketatuko dugu!!

Zozketa asteartean gaueko 12etan izango da.

ONDO PASA IHAUTERIAK!!

BEREZITASUNAK

- GOSARIAK - PINTXOAK
(8,30etatik aurrera)
- MENU BEREZIAK
- MENU TRADIZIONALAK

JANGELA:

Astelehenetik larunbatera **IREKITA**
Astelehenetik ostegunera **GAUEZ ITXITA**

Etxebizitzak

Logela bat daukat alokatzeko. Erropak ere garbitzen ditut. **Tel.: 74 24 06**

Etxe bat daukat alokatzeko. Urasandin 3. pisuan **Tel.: 74 13 57**

Etxe bat erosiko nuke Deban. Deitu eguerdian 13,30-14,30. Gauez 19,30etatik aurrera. **Tel. 74 04 59**

Etxe bat salgai daukat Santa Klara 24an. **Tel: 74 40 52.** Ofizina orduetan deitu.

Baserri bat hartuko genuke **Tel.: 76 62 64.** Imanol

Etxebarrin etxebizitza berri bat dago salgai. 87 m² Sukaldea, 3 logela, egongela bat, 2 bainu gela, ganbara, terraza eta garajea. **Tel.: (943) 70 12 71**

Pisu bat salgai. Ubitarte 11. zenbakian. **Tel. 74 12 07 (Iñaki - Mertxe)**

Etxe bat saltzen dut Urasandin. 1. pisua. **Tel: 75 51 69**

Etxe bat daukat alokatzeko. Altzariak dauzka. Pedro Migel Urruzuno kalean (Olatz altzari denda ondoan). **Tel.: 74 08 09 3,30etatik - 7,30etara.**

Lana

Hiru neska gara eta astebukaeretan umeak zaintzeko prest gaude. Deitu 74 05 36/74 08 46. Gauez.

Salerosketak

Gitarra elektrika bat salgai. Fender Stratocaster imitazioa eta 50 watioko Peavey amplifikadorearekin. **Tel. 74 02 36 Deitu arratsalde ofizina orduetan**

Arropa sekadora - zentrifugadora bat saltzen dut. Estrenatu gabe. 40.000 pta balio zuena 18.000 ptan. **74 19 81 (Ana Mari)**

Garaje bat daukat alokatzeko telefonika parean. **Tel.: 74 29 31 Rosi**

San Antolin auzoan lokal bat alokatzeko daukat. Taberna ondoan. **Tel: 74 17 95**

Ekonomika bat saltzen dugu. Berria. Deitu lanordutan. **Tel.: 74 16 38 Ainhoa**

Gasezko estufak erosiko nituzke. **Tel: 74 08 95 Maite**

OPEL CORSA GT 3 ate SS-AH saltzen da. **Tel.: 74 01 17**

Bigarren eskuko Renault 12 Bi- 1988 Y salgai. Prezio egokia. **Tel.: 74 41 32 Fernando**

Bestelakoak

Pasa den larunbatean norbaitek berea ez zen txamarra bonber urdin bat eraman zuen etxera. Konturatu bazara deitu mesedez 74 22 59 telefonora.

Bi bizikleta emango nituzke. Zaharrak dira baina itxura onian daude. Norbaitek aprobetxatu nahi baditu deitu. **74 28 24**

Elizatik Urasandira bitartean betaurrekoak galdu nituen errege bezperan. Norbaitek aurkitu bazituen deitu mesedez: **74 20 59**

Karitasek 125 W.eko frigorifiko bat dauka behar duenari emateko. **74 15 09 / 74 12 57**

Pasa den ostiralean, hilak 4, urrezko pultsera bat galdu nuen, Plazatik, Eroskira eta handik Elizara egin nuen ibilbidean. Arratsaldeko 6,30eta 7ak bitartean izan zen. **Norbaitek aurkitu badu mesedez deitu 74 15 24 ra.**

Kalean galdutako Asterix eta Obelixen komiki baten bi argazki ekarri dizkigute BARREnera. Jabea pasa dadila jasotzera.

Urtarrilaren 21ean, ostirala, lepoko painelu bat galdu nuen Andonegitarren etxe parean. Norbaitek aurkitu badu mesedez deitu. **Tel: 74 17 80 Mari Tere**

Urrezko katea eta medaila aurkitu ditut Mintxetan. **Deitu 74 19 21 zenbakira**

URTARRILEAN

Hildakoak

- ▶ Felisa Garitagoitia Alvarez Urtarrilak 4
- ▶ Antonio Ibarra Polo (59 urte) Urtarrilak 5
- ▶ Blasa Barroso Corchado (97 urte) Urtarrilak 7
- ▶ Santiago Kortabarria Osoro (64 urte) Urtarrilak 9
- ▶ Engracia Juaristi Vilar Urtarrilak 9
- ▶ Teodoro Izagirre Igartua (79 urte) Urtarrilak 10
- ▶ Gregorio Domingo Izagirre Etxaniz (81 urte) Urtarrilak 10
- ▶ Nicolas San Martin Arrieta (81 urte) Urtarrilak 15
- ▶ Benito Saez Medrano Urtarrilak 18
- ▶ Edurne Ortiz de Villalba. Urtarrilak 20
- ▶ Fermina Barrenetxea Elorza (86 urte) Urtarrilak 24
- ▶ Elvira Zubiaurre Izagirre (84 urte) Urtarrilak 28

Jaiotakoak

- ▶ Miriam Osoro Kaperotxipi (Urtarrilak 3)
- ▶ Nerea Gurrutxaga Zuazubizkar (Urtarrilak 5)
- ▶ Roke Ortuoste Salegi (Urtarrilak 5)
- ▶ Bidane Gonzalez Mugerza (Urtarrilak 5)

OTSAILAK 14
San Balentin



MOXOLO, MOXOLA
MOZORRO ZAITEZ!

DISCOTEK **BONBA BAT DA**
guass
ELGOIBAR



LARUNBATEAN
100.000 pta.
MOZORRO ONENARI

IGANDEAN

ETA
GURE
SEXY
GOGOAK

KARDINIA BALAIK
IZUGARRIZKO FESTA



300.000 ptako **ZOZKETA**